EREÑOTZUKO IRRINTZI TABERNAREN ZERBITZUA USTIATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA, PROZEDURA IREKI BIDEZ

AURKIBIDEA

LABURPEN TAULA

KLAUSULAK

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

3. KONTRATUAREN PREZIOA ETA BIDERAGARRITASUNA

4. BERMEAK

II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

5. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

5.1. BALIO JUDIZIOEN BITARTEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK (40 puntu arte)

5.2 AUTOMATIKOKI BALORATZEKO IRIZPIDEAK (60 puntu arte)

6. KONTRATATZAILEAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

6.1 KAUDIMENA EGIAZTATZEKO BITARTEKOAK

6.2 GUTXIENEKO KAUDIMEN BALDINTZA

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

8. KONTRATAZIO-MAHAIA

9. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

10. KONTRATUA ESLEITZEA ETA GAUZATZEA

III. KONTRATUA BURUTZEA

11. KONTRATUA GAUZATZEA

11.1 ZERBITZUARI ATXIKITU BEHARREKO BALIABIDEAK

12. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

12.1 ESLEIPENDUNAREN LAN EGINKIZUNAK: Kontratistaren gutxieneko lan baldintzak

12.2 HIZKUNTZA BALDINTZAK

13. KONTRATUAISTAK DUEN ARDURA, KONTRATUA BETEARAZTEKO UNEAN HIRUGARREN BATZUEI ERAGINDAKO KALTEAK DIRELA ETA

14. KONTRATUA ALDATZEA ETA SUNTSIARAZTEA

15. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHAR OROKORRAK

16. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK

17. ARAU HAUSTEAK

18. ZIGORRAK

19. KONTRATUA LAGATZEA

20. EREÑOTZUKO AUZO UDALAREN PRERROGATIBAK

21.INSTALAZIOAK ITZULTZEA

22. HONDAKINEN KUDEAKETA

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA ESKUMEN AHALDUNA

23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

24. DATU PERTSONALEN BABESA

25. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

26. KONTRATAZIO PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK

LABURPEN TAULA

A) KONTRATUAREN XEDEA
Ereñotzuko Irrintzi tabernaren zerbitzuaren ustiapena eta horrekin batera:

- Auzoko informazio puntuaren kudeaketa.
- Frontoiko aldagela eta komun publikoen garbiketa.

CPV: 55410000-7 Tabernak kudeatzeko zerbitzuak

B) LIZITAZIOAREN GUTXIENEKO AURREKONTUA
Ez da esleipendunak administrazioari ordaindu beharreko preziorik finkatzen.

Tabernaren ustiapenaren emaitza ekonomikoak esleipendunarentzat izango dira. Udalak ez du emakidaren finantzaketan inola ere parte hartuko; ez dio gutxieneko diru bilketarik edo etekinik ziurtatuko eta ez dio diru laguntzarik emango.

Balio zenbatetsia urteko 110.000,00€ BEZ gabe.
Kontratuaren gehienezko iraupena kontutan hartuta; 110.000,00 x 5urte = 550.000,00€ BEZ gabe

C) KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZAKOA ETA TEKNIKOA EDO PROFESIONALA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA
Plegu honetako 6. Klausulan jasotakoa.

D) PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA
Bi eratara aurkeztu litezke eskaintzak: elektronikoki Hernaniko Udalaren kontratazio profilean eta paperean Ereñotzuko Auzo Udalean.

LEKUA: Ereñotzuko Auzo Udaleko bulegoan (Ereñotzu 2, 20128 Hernani).

BULEGOKO ORDUTEGIA: Astelehenetan 15:00-19:00 eta asteartetik ostiralera 09:30etatik 13:30ak arte, lanegunetan (larunbatean izan ezik).

EPEA: aipatu iragarkia Hernaniko udaleko kontratazioaren profilean agertzen den egunaren biharamunetik hasi eta **HOGEITA SEI (26) EGUN NATURALEKO** epean (eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo igandea bada, hurrengo lanegunera pasatuko da).

E) ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabiliko diren balorazio irizpideak honako hauek dira:

1. BALIO JUDIZIO BITARTEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK (gehienez 40 puntu)
   1.1 USTIAKETA PROIEKTUA *40 puntu arte.*

2. AUTOMATIKOKI BALORATZEKO IRIZPIDEAK (gehienez 60 puntu)
   2.1 GAITASUN PROFESIONALA, *50 puntu arte.*
   2.2 ZERBITZUAN HOBEKUNTZAK ESKAINTZEA, *10 puntu arte.*

F) KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena, urte batekoa izango da, eta, beste lau urtez luzagarria, urtez urte (1+1+1+1+1), guztira 5 urte izango direlarik gehienez.

G) BERMEA ETA BERMEAREN EPEA

Kontratuaren esleipendunak, gainera, behin betiko bermea jarri beharko du gero, **1.000 eurokoa**, bere gain hartzen dituen obligazioak beteko dituela ziurtatzearren.

Berme epea: kontratua bukatzen denetik 2 hilabete.

KLAUSULAK

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Xedea: Honako plegu hau oinarri hartuta egingo den kontratuaren xedea ondokoa da: Ereñotzuko Irrintzi tabernaren zerbitzuaren ustiapena, eta horrekin batera auzoko informazio puntuaren kudeaketa eta Frontoiko aldagela eta komun publikoen garbiketa, beti ere espedientean dauden eta kontratu izaera izango duten baldintza teknikoen pleguen arabera.

CPV: 55410000-7 Tabernak kudeatzeko zerbitzuak

Loteak: Kontratu honen xedea lote bakarrean jaso da. Zerbitzuaren izaera kontuan izanda ezin da loteetan banatu, zerbitzu integrala baita.

Aldaketa edo alternatibak: ez dira onartuko

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena, urte batekoa izango da, eta, beste lau urtez luzagarria, urtez urte (1+1+1+1+1), guztira 5 urte izango direlarik gehienez.

Luzapena kontratazio organoak erabakiko du eta kontratistarentzat nahitaezkoa izango da, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baino BI HILABETE lehenagotik adierazten bada

Nolanahi ere, kontratuaren luzapena berariaz onartu beharko da.

3. KONTRATUAREN PREZIOA ETA BIDERAGARRITASUNA

Ez da esleipendunak administrazioari ordaindu beharreko preziorik finkatzen.

Ustiapenaren trukean Ereñotzuko frontoiko aldagelak eta komunen garbiketa egin beharko du esleipendunak. Kanpoko komunen garbiketa egunero egin beharko da, gainerakoak (aldagelak), erabiltzen badira, egunero garbitu behar dira.

Tabernaren ustiapenaren emaitza ekonomikoak esleipendunarentzat izango dira. Udalak ez du emakidaren finantzaketan inola ere parte hartuko; ez dio gutxieneko diru bilketarik edo etekinik ziurtatuko eta ez dio diru laguntzarik emango.

Balio zenbatetsia urteko 110.000,00€ BEZ gabe.
Kontratuaren gehienezko iraupena kontutan hartuta; 110.000,00 x 5urte = 550.000,00€ BEZ gabe

4. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea jarri beharko du **1.000 eurokoa**, bere gain hartzen dituen obligazioak beteko dituela ziurtatzearren.

Bermearen itzulketa, hala osoa nola partziala, Sektore Publikoen Kontratu Legearen 111. artikuluan aurreikusitako moduan egingo da, esleipendunak kontratuko betebehar guztiak bete dituenean.

II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

5. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da. SPKLren 156 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Esleipen irizpideak erantsitako ondorengo hauek izango lirateke:

5.1 BALIO JUDIZIO BITARTEZ BALORATZEKO IRIZPIDEAK (Gehienez 40 puntu)

5.1.1 USTIAKETA PROIEKTUA *(40 puntu arte)*

Memoria bat aurkeztuko da eta ondoren adierazten diren atalak izango ditu.

Memoriari dagokionez, aurkezten diren testu idatzi guztien erredakzioak ondoko parametroak bete beharko dituzte:

- Dokumentazioaren gehienezko luzera (azalak edo aurkibideak kontatzeke): Proiektua gehienez 20 orrialdekoa (inprimatutako aldeak DIN A4) izango da. Orrialde kopuru horretatik aurrera aurkezten direnak ez dira kontutan hartuko balorazioa egiterakoan.
- Letra mota eta neurria: Arial 10
- Lerro-artea: 1,15
- Nahi diren irudi grafiko, marrazkia edo eskema erabili daitezke (horiek azaltzen diren orrialdeak idatzizkotzat hartuko dira).

Balorazioa egiteko honako hauek hartuko dira kontuan:

- Lan metodologia eta langileen antolaketa. 8 puntu.
  - Giza baliabideak.
  - Ordutegia eta lan-egutegia.
- Lantaldearen konfigurazioa eta lan banaketa. 2 puntu.
- Langileen euskara maila, eskatutako titulaziotik gorakoa. 2 puntu.
- Tabernako zerbitzuak eta ordutegiak zabaltzea, oporren urtegaraia zehaztea eta proposamenak egitea, gutxienekotik haratago. 8 puntu gehienez.
- Taldeentzako eta ospakizun berezietarako prezio bereziko menuak eta eskaintzak prestatzeari dagokionez proposamena. 6 puntu gehienez.
- Frontoiko komun publiko eta aldagelen garbiketa zerbitzuaren kudeaketaren proposamena eta deskribapena, zereginen definizioa eta antolaketa. 4 puntu.
- Auzoko informazio puntuaren kudeaketa, eskatutako gutxienekotik haratago (pakete turistikoak, ekintzak eta kontzertuak antolatzea...). 6 puntu gehienez.
- Negozioa bultzatzeko helburuarekin ekipamenduen eta baliabide teknikoen inguruan, edo marketinaren arloan (sare sozialak adibidez) egingo diren hobekuntzak. 6 puntu gehienez.

Zerbitzu teknikoak arrazoiak eman beharko dituzte administrazioarentzat komenigarriena den esleipen proposamena zein den justifikatzeko.

Gutxienez 20 puntu atera beharko dute lizitatzaileek Aurrera jarraitu ahal izateko.

5.2 AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK (60 puntu arte)

5.2.1 GAITASUN PROFESIONALA formula matematikoen bidez baloragarri diren irizpideak: (50 puntu arte)

Lana burutzeko izendatuko diren langileen gaitasuna eta esperientzia egiaztatzen duten ziurtagirien bidez.

5.2.1 lkasketa tituluak *(14 puntu arte):*

- Lanbide-heziketako erdi mailako titulazioa sukaldaritza eta gastronomian edo jatetxe arloko zerbitzuetan eta hortik gorakoak (5 puntu, titulu bakoitzagatik).
- Lanbide-heziketako oinarrizko titulazioa ostalaritza eta turismoko edozein ikasketetan (3 puntu, titulu bakoitzagatik).
- Sukaldaritza edo errestaurazio ikastaroengatik (1 puntu, 25 ordutik gorako ikastaro bakoitzagatik)

5.2.2 Lanbide esperientzia *(36 puntu arte):*

- Ostalaritza establezimenduetan egindako kudeaketa lanengatik (taberna eta kafetegia edo antzeko kategoria): 3 puntu lan egindako urte oso bakoitzagatik, edo zati proportzionala, gutxieneko kaudimenaren - 12 hilabete- gainetik beti ere. (24 puntu arte).

- Ostalaritza establezimenduetan egindako lanengatik (taberna eta kafetegia edo antzeko kategorian langile). 2 puntu lan egindako urte oso bakoitzagatik, edo zati proportzionala, gutxieneko kaudimenaren - 12 hilabete- gainetik beti ere. (12 puntu arte).

5.2.2.- GARBIKETA ZERBITZUAN HOBEKUNTZAK ESKAINTZEA (10 puntu arte):

- Aisialdi guneko komunaren garbiketa astean behin egitea. 4 puntu.
- Aisialdi guneko komunaren garbiketa astean bitan egitea; egun bat astez eta bestea asteburuan: 6 puntu.
- Aisialdi guneko komunaren garbiketa astean lautan egitea; egun bat gutxienez asteburuan: 10 puntu.

6. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Gaitasun juridikoa eta jardutekoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLREN 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Halaber, beren kabuz nahiz baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute hori, horretarako berariaz emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridikoa bertako kideren batek ordezkatzen duenean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, arestian aipatutako kontratatzeko debekuek ordezkariari ere eragingo diote.

Gainera, enpresa lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen xedearekin, eta helburu hori behar bezala burutzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu bere erakundeak.

Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren

bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

6.1.- KAUDIMENA EGIAZTATZEKO BITARTEKOAK:

- Kontratuaren eremuan dagoen lizitatzailearen urteko negozio-bolumena (salmentak), enpresaren eraketa-dataren edo jardueren hasieraren arabera eskuragarri dagoen azken hiru ekitaldietako onenari buruzkoa: 50.000,00 € (berrogei ta hamar mila euro).
- Negozio bolumena egiaztatzeko honakoren bat egiaztatuko da: Merkataritza erregistroan aurkeztutako Urteko kontuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitorpena, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren jarduera ekonomikoa aitortzeko eranskina, edota Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena.
- Enpresa hasi berriek modu honetara egiaztatu dezakete kaudimen ekonomikoa: finantza entitateetako ziurtagiria kontu korrontean 5.000 euroko zenbatekoa duela adierazten duena, edo aseguru etxeko ziurtagiria arrisku profesionalengatiko 300.000 euroko kalte ordain aseguru bat kontratatzeko konpromisoa adierazten duena esleipenduna izanez gero.

6.2.- GUTXIENEKO KAUDIMEN BALDINTZA

Egiaztatu ahal izango da azken bost urteetan ostalaritzan edo beste sektore batean, enpresaburu gisa edo langile gisa egindako lanen edo emandako zerbitzu nagusienen zerrenda aurkeztuta. Lanak egiaztatu beharko dira dagokion organuak egindako ziurtagirien bidez, administrazio publikoaren kasuan, edo enpresarioaren aitorpen edo ziurtagiri bidez sektore pribatukoa denean.

- Ostalaritza arloan antzeko lanetan azken bost urte hauen barruan gutxienez 12 hilabetez langile edo enpresaburu gisa aritu izana egiaztatzea.
- Edozein arlotan azken bost urteen barruan 24 hilabetez enpresaburu gisa kudeaketan lanetan aritu izana edota negozio txiki batean langile gisa aritu izana egiaztatzea.
- Enpresa esleipendunak herritarrekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hízkuntza ofizialetan egiteko, eta esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko dute tabernariek Europako Erreferentzia Markoaren 82 maila edo parekoa ahozkoan (lVAPeko 2. Hearen eta HABEren 2. Mailaren parekoa, ahozkoan). Frogagiririk ez badago, Udal Euskaltegian egin daiteke froga hau, kasu konkretu honetarako.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, baita horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako leku, ordutegi eta epean aztertu ahal izango dira: elektronikoki Hernaniko Udalaren **Kontratatzaile Profilean** web-orri edo atari honetan sartuta: www.hernani.eus eta paperean **Ereñotzuko Auzo Udalean**.

LEKUA: Ereñotzuko Auzo Udaleko bulegoan (Ereñotzu 2, 20128 Hernani).

ORDUTEGIA: Astelehenetan 15:00-19:00 eta asteartetik ostiralera 09:30etatik 13:30ak arte, lanegunetan (larunbatean izan ezik).

EPEA: lehiaketa honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

Proposamenak, berriz, bi eratara aurkeztu daitezke: elektronikoki Hernaniko Udalaren **Kontratatzaile Profilean** web-orri edo atari honetan sartuta: www.hernani.eus eta paperean **Ereñotzuko Auzo Udalean.**

LEKUA: Ereñotzuko Auzo Udaleko bulegoan (Ereñotzu 2, 20128 Hernani).

BULEGOKO ORDUTEGIA: Astelehenetan 15:00-19:00 eta asteartetik ostiralera 09:30etatik 13:30ak arte, lanegunetan (larunbatean izan ezik).

EPEA: Aipatu iragarkia Hernaniko udaleko kontratazioaren profilean agertzen den egunaren biharamunetik hasi eta HOGEITA SEI (26) EGUN NATURALEKO epean (eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo igandea bada, hurrengo lanegunera pasatuko da).

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezingo da aldi baterako beste enpresa-elkarte batzuekin batera proposamenik aurkeztu, baldin eta proposamena bakarka aurkeztu bada, edo aldi baterako beste enpresa-elkarteren batean baino gehiagotan agertzen bada.

Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztuko dira.

Epea igaro ondoren aurkeztutako proposamenik ez da onartuko, nahiz eta epea amaitu aurretik postetxean aurkeztu zirela egiaztatu, non eta postaz bidali zen egunean bertan eskaintza bidali zen data egiaztatzen duen telex, fax, telegrama edo mezu elektronikoa ez bazaio bidaltzen kontratazio organoari.

Proposamenak aurkeztu izateak lizitatzaileak Administrazio Klausula Partikularren Pleguetan eta Xedapen Teknikoen Pleguan adierazitako guztia inolako baldintzarik gabe onartu beharko duela suposatuko du.

Enpresa lizitatzaileek **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO** aurkeztu beharko dituzte:

"1" Zenbakidun artxibo elektronikoa edo kartazala: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, agiri honen l. Eranskineko ereduaren arabera

* Prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean, Kontratazio Organo edo Mahaiak egiaztagiri guztiak edo zati bat aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, baldin eta uste badu arrazoizko zalantzak daudela adierazpenaren indarraldi edo fidagarritasunari buruz, kontratua esleitu aurretik betiere.

** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, Pleguko l. Eranskineko eredua jarraituz.

Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. Atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxienezko iraupenaz osatzeko konpromisoa au rkeztuko da.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

"2" Zenbakidun artxibo elektronikoa edo kartazala: MEMORIA TEKNIKOA
Memoria teknikoak honakoa eduki behar du: a) Zerbitzuaren ustiaketa proiektua (5.1 klausulan zehaztutakoaren balorazioa egiteko beharrezko Dokumentazioa). * Artxibo elektroniko honetan ezingo da 3. artxibo elektronikoan joan beharko duen daturik azaldu (gaitasun profesionala eta hobekuntzak). Ondorioa, lizitaziotik kanpo geratzea izango da, eta ondorioz ez da 3. artxibo elektronikoa irekitzea egingo.

"3" Zenbakidun artxibo elektronikoa edo kartazala: GAITASUN PROFESIONALA ETA HOBEKUNTZAK
Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak: a) II. Eranskina: Automatikoki baloratzeko irizpideen proposamena. b) Gaitasun profesionala. (5.2 klausulan zehaztutakoaren balorazioa egiteko beharrezko dokumentazioa). c)) Hobekuntzak garbiketa zerbitzuan (5.3 klausulan zehaztutakoaren balorazioa egiteko beharrezko dokumentazioa).

8. KONTRATAZIO-MAHAIA

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko Kontratazio Mahai iraunkorra izango da.

Gainera, Mahaiak eskatutako udal arduradun tekniko guztiak joan daitezke bertara, aholkularitza-lanak egitera.

9. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Bai hasierako deialdia bai gerta litezkeen aldaketak Hernaniko Udaleko Kontratatzaile Profilean argitaratuko dira (www.hernani.eus) helbidean. Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokitzat.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan, "1" zenbakidun artxibo elektronikoko dokumentazio administratiboa irekiko da.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek adierazpen arduratsua zuzendu beharko dute, baldin ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei, hiru laneguneko epea emango zaie, zuzentzeko-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio-organo edo Mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Kontratazio-mahaiak "2" zenbakidun artxibo elektronikoa irekiko du, balio irítzi bidez balioztatzeko irizpideen eskaintza dakarrena. Egintza horretan adieraziko du Mahaiak "2" zenbakidun artxiboan aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa eta zer proposamen onartu diren, zer proposamen baztertu diren eta zergatik baztertu diren horiek.

Balio iritzi bidez balioztatzeko dokumentazioa Kontratazio Organoko zerbitzu teknikoei helaraziko zaie, txostena egin dezaten.

"3" zenbakidun artxibo elektronikoa jendaurrean irekiko da eta profilean jasotako deialdian hala zehazten bada, zuzenean jarraitu ahal izango da bertan jasotako lotura bidez.

Era berean, jakinaraziko du nola balioztatu dituen balio iritzi bidez balioztatzeko esleipen irizpideak. Eta, azkenik, irizpide automatikoak ireki eta irakurriko ditu.

Egintza publikoa amaitutakoan, bilkura berean, eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu Mahaiak. Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Proposamenen arteko puntuazio berdinketa egongo balitz (bi dezimaletan berdinketa) SPKLren 147.2 atalean jasotako irizpide sozialak hurrenez hurren aplikatuz erabakiko da, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den unea kontuan hartuz.

Gero, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio Mahaiak kontratazio-organoari, puntuaziorik onena lortzen duen hautagaiaren alde; eta zera egiaztatuko du esleipendun izateko proposatzen duen lizitatzaileari dagokionez: enpresa behar bezala eratu izana; proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalorde askietsia izatea; kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izatea edo, bestêla, dagokion sailkapena; eta kontratatzeko inongo debekuren pean ez egotea.

Gainera, kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio puntuaziorik onena ateratzen duen enpresari.

10. KONTRATUA ESLEITZEA ETA GAUZATZEA

10.1. Kontratazio Mahaiak, SPKLren 150. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoari igorriko dizkio aurkeztutako proposamenak, beheranzko hurrenkeran antolatuta, eta baztertuak edo neurríz kanpokotzat jo direnak salbu, aktarekin eta esleipen-proposamenarekin batera.

10.2 Esleipen proposamenak ez du lizitatzailearen aldeko eskubiderik sortzen. Eskubideak sortuko dira lizitatzaileak kontratua sinatu edo esleipen proposamena onartzen duenean.

10.3 Mahaiak enpresari eskatuko dio (edo ABEE osatzen duten enpresei), Lizitatzaileen Erregistroan izena emanda egertzeko obligaziorik ez badago edo datu edo dokumentuetakoren bat Erregistro horretan jasota ez badago, honako dokumentazio hau aurkeztu dezaten epe berean:

10.3.1 Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lízitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna, osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatu-

tuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

10.3.2 Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (persona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean)

10.3.3 Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera kontratatzeko daukan kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa. (6. Atalaren arabera).

10.3.4 Zerga eta Gizarte Sesurantzako oblisazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

10.3.5. Dagokion behin-betiko bermea aurkeztu izanaren ziurtagiria

10.3.6 Baldintzen agiriko 15. klausulan aurreikusitako aseguru poliza.

10.3.7 Baldintza agiriko 12.2 klausulan ezarritako hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ziurtagiriak.

10.3.8 Esleipenduna enpresen batasun bat baldin bada, kontratua sinatu aurretik, Enpresen Aldi Baterako Batasun gisa legez eratu dela egiaztatu beharko du, eta horren IFK aurkeztu.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza. Kasu horretan, puntuazioan hurrengoa den hautagaiaren alde esleitzeko proposamena egingo da eta dokumentazio bera eskatu zaio.

Kontratazio organoari dagokio esleipena egitea eta ebazpen arrazoitu bidez erabakiko da; erabakia esleipendunari jakinaraziko zaio eta baita gainontzeko lizitatzaileei ere. Kontratatzailearen profilean argitaratu ko da.

Kontratua formalizazioarekin gauzatuko da, SPKLren 153. artikuluán jasotakoaren arabera.

III.- KONTRATUA BURUTZEA

11. KONTRATUA GAUZATZEA

- Zerbitzua ematen hasi aurretik, esleipendunaren esku jartzen diren ekipamendu, instalazio, altzari eta gainontzeko tresnen inbentarioari dagokion aktan jasoko da. Bertan beren egoeraren berri emango da, eta bi alderdien adostasuna beharko du.

  Halaber, kontratua amaitzen edo hausten denean, akta jasoko da, eta enpresa esleipenduna behartuta dago zerbitzua ematen hasi zenean bere esku jarri ziren ondasunak egoera onean uztera edota berriak jartzera.

  Bestela, Ereñotzuko Auzo Udalak esleipendunak jarritako bermea erabiliko du ondasunak konpondu edota berriak erosteko.

- Kontratu honetako bermearen epemugari dagokionean, bi hilabeteko epearen barruan erantzun beharko dio esleipendunak ondasunak egoera onean uzteko edo berriak jartzeko daukan betebeharrari.

- Kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzearen arriskuak.

- Agiri honetan jasotako klausulen arabera betearaziko da kontratua, bai eta espedienteari atxikitako espezifikazio teknikoen arabera ere, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

  Kontratistari edo bere mendeko pertsonei lepora dakizkiekeen ekintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.

12. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

Esleipendunak hurrengo betebeharrak izango ditu:

12.1 ESLEIPENDUNAREN LAN EGINKIZUNAK.

Klausula honetan jasotako betebeharrak exekuzioko baldintza berezitzat jotzen dira; horiek ez betetzeak, beraz, agiri honetan jasotako zigorrak ezartzea ekarriko du, antolamendu juridikoak aurreikusitako ondorioez gain.

12.1.a. Kontratisten gutxieneko lan-baldintzak.

- Lan legeria, gizarte segurantza eta Hitzarmen kolektiboen alorrean indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko dira, baita 31/95 Legen (laneko Arriskuen prebentziorako Legea) eta lege hori garatzen duten errege-dekretuetan jasotako guztia. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

- Esleipendunak indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa aplikatu beharko du.

- Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko duela, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

- Hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean jasoko da eta, halaber, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, enpresa esleipendunak adierazita badauka kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikagarri zaiela halako hitzarmen kolektiboa.

- Lehiatzen direnek beren buruaz eta beren borondatez onesten dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleitze- eta gauzatze-prozesuen ondorioz sortzen diren datu guztiei, prozesu horiek bukatu arte.
- 50 langile edo gehiagoko enpresaren kasuan, honako baldintz hauek bete beharko dituzte:

  1.- Enpresa esleipendunak, 50 langile edo gehiago baldin baditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana eduki beharko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluarekin bat, eta plan horrek dagokion lan erregistroan inskribatuta egon beharko du. Gainera, behin kontratua egikaritzen hasita, enpresak planaren aplikazioa egiaztatu beharko du.

  2.- Enplegatuen %2 gutxienez desgaitasunen bat duten langileak izatea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42. artikuluaren arabera, erreglamenduz zehazten diren baldintzetan.

12.2 HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Hernaniko Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak Udal barruan eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko.

Otsailaren 22ko 19/2024 DEKRETUAK, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak 13. artikuluan arautzen ditu kontratazio publikorako prozedurak. Bertan jasotzen du euskal sektore publikoko entitateek egindako kontratazio publikoetako prozedurak gauzatzen direnean kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituztela kontratazio-organoek, baita, hala badagokio, behar diren baliabide ekonomikoak ere; batetik herritar hartzaileari bermatzeko aukeratzen duen hizkuntza ofizialean emango zaiola zerbitzua eta hizkuntza-eskubideak bermatzeko baldintzetan emango dela zerbitzua; eta bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza ofizialtasunaren erregularizazioa betetzeko. Eta, era berean, kontratazio-prozedura arautzen duten agiriek kontratuaren objektua kontuan hartuta, hizkuntza-normalizazioaren arloan kontratua gauzatzeko baldintzak ezarriko dituzte.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua ezinbestean eskaraz gauzatzea eskatzen du, enpresa esleipendunaren langileek zuzeneko harremana izango dutelako zerbitzu jasole euskaldunekin. Administrazioari dagokio zerbitzu jasoleen hizkuntza eskubideak bermatzea. Horrenbestez, administrazioak bermatu behar du enpresa esleipendunak zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko gaitasuna baduela.

Hizkuntza baldintza hauek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake edo kontratua bertan behera uztea Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari jarraituz.

a) Euskara gaitasunari buruz

Enpresa esleipendunak herritarrekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan egiteko, eta esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko dute barran eta mahaietan bezeroak artatuko dituenak Europako Erreferentzia Markoaren B2 maila ahozko-an edo baliokidea eta sukaldariak Europako Erreferentzia Markoaren B1 maila ahozkoan edo baliokidea.

Esleipendun izateko proposatutako enpresak kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du zerbitzua emango duten langileek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna, horretarako egingo zaion eskakizunean emandako epean.

Egiaztapena nola:

- Euskara gaitasunaren titulu bitartez
- Euskaltegiratuta dauden pertsonen kasuan, euskaltegiak egindako agiri bitartez.

- Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko batek egindako mailaketa proban ateratako emaitza egiaztatzen duen agiri bitartez

- Euskara maila egiaztatzetik salbuetsita dagoela jasotzen duen agiriaren bitartez: Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan eta otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuaren eranskinean jasota dagoenaren baitan.

- Hernaniko Udalean 2006az geroztik egindako mailaketa probaren batean ateratako emaitza hartuko da kontuan.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresako langileek kontratazio honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatua ez badute, mailaketa-probak egingo dizkie Udalak. Azterketak Udalak zehaztutako egunean, orduan eta lekuan egingo dira. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuko ditu dagozkion azterketak langile horien euskara maila neurtzeko. Horretarako Euskara Zerbitzua harremanetan jarriko da enpresarekin. Enpresak bere gain hartuko du mailaketa proba horiek egiteak sor dezakeen kostua.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresak zerbitzurako aurkezten dituen langile guztiek zerbitzu honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badute, ezin izango da esleipenduna izan. Langileren batek eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badu, enpresak euskara gaitasun hori egiaztatua duen beste langile bat proposatuko du 3 lan eguneko epean gehienez ere, zerbitzuaren enpresa esleipenduna izan ahal izateko. Epe horretan euskara gaitasun maila egiaztatua duen beste langilerik aurkezten ez badu, esleipendun izateko proposatutako enpresa ezin izango da esleipenduna izan. Horrelakorik gertatuz gero, Udalak lehiaketaren zerrendan 2. geratu den lizitatzailearen euskara gaitasuna baloratuko du. Eta horrela hurrenez hurren.

Euskara Zerbitzuak txostena egin arte ezingo du Kontratazio Mahaiak kontratazioan aurrera egin.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago enpresa esleipendunak langileren bat aldatuz gero edo zerbitzua emateko pertsona berririk kontratatzeko asmorik izanez gero, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Langile aldaketa egiten den guztietan enpresak Udalari jakinaraziko dizkio langile berriaren izen-abizenak eta horrek egiaztatutako euskara maila. Enpresak Udalaren aldeko txostena beharko du langile berria lanean hasi aurretik.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Hernaniko Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

b.1) Hizkuntza paisaia

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak tabernan jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:

- Hitzek euskaraz eta espainieraz antzeko grafia dutenean.
- Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
- Oso zabalduak dauden hitzetan

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere Euskara Zerbitzuarekin aldez aurretik adostuta.

Musika eta telebista jartzen badira, ezinbestekoa izango da musika eta telebista euskaraz izatea.

b.2) Erabiltzaileekin erabiliko den hizkuntzari buruz

Hernaniko Udalak onartutako irizpideei jarraituz, herritar euskaldunekiko ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan…) eta idatzizkoa (menua, karta, oharrak, abisuak, ordutegiak...) euskaraz izango da.

Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

Herritar erdaldunekiko idatzizko harremanean, euskarari emango zaio lehentasuna.

b.3) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Ondorioz, nahitaezkoa izango da enpresa esleipendunak Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izatea. Eta Euskara Zerbitzuak jarraipena egingo dio behin zerbitzua esleituta.

Enpresa esleipendunak erabiltzaileen esku jarriko dituen ahozko eta idatzizko materialaren kalitatearen ardura izango du; beraz, enpresa esleipendunak bermatuko du banatuko dituen euskarri guztiak zuzenak, argiak eta ulergarriak izatea. Kalitate arazorik antzemango balitz, enpresaren kontura joango da zuzentzea.

Enpresak helaraziko dizkie zerbitzua emango duten langileei Udalak jarritako hizkuntza jarraibide hauek.

c) Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz

Kontratazioa sustatu duen udal lansailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake, Sektore Publikoko legearen 192. artikuluari jarraituz. Behin eta berriz urratzeak, berriz, kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen buruzko Legearen 211. artikuluari jarraituz.

13. KONTRATISTAK DUEN ARDURA, KONTRATUA BETEARAZTEKO UNEAN HIRUGARREN BATZUEI ERAGINDAKO KALTEAK DIRELA ETA

Enpresa esleipendunaren ardura da kontratuko lanen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196.artikuluan xedatutakoaren araber

Nolanahi ere, kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, balizko kalteen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa esleipendunak aseguru kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, bai eta kontratu hori sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere.

Nolanahi ere, kontratistak ordainduko ditu kalte-galerak, aseguru polizetako mugak gainditzen dituen zatian eta polizek estali gabeko ondaunetan eta arriskuetan.

14. KONTRATUA ALDATZEA ETA SUNTSIARAZTEA

Behin kontratua sinatuta, herri onurako arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango du kontratua Udalak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan aurreikusitakoak eta Lege bereko 313.artikuluan bereziki zerbitzu kontratuetarako jasotakoak.

Kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, baita ere:

- Kontratuan dirauen bitartean bi hutsegite oso larri egiteagatik kontratua desegin ahal izango da.
- Kontratuan dirauen bitartean hiru hutsegite larri egiteagatik kontratua desegin ahal izango da

Nolanahi ere, kontratistak Udalari sortutako kalteak ordaindu beharko dizkio.

Kontratua esleipendunaren erruz deuseztatzen bada, behin-betiko bermea konfiskatuko zaio, eta kalterik edo galerarik balitz, konfiskatutako bermeaz gorako alde hori berak ordaindu beharko luke.

15. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHAR OROKORRAK

Honako hauek izango dira:

a) Kontratuaren objektua den zerbitzua ematea eta horretarako kontratua sinatu eta hurrengo 10 egunen barruan taberna irekitzea.

b) Erabiltzen dituen eraikin eta instalazioak, zerbitzua egoki emateko berezkoak eta beharrezkoak direnak, funtzionamenduari, garbitasunari eta higieneari dagokienez, egoera onean eduki eta mantentzea, kontratua bukatzen denean hala itzultzeko.

c) Dagokion araudian ezarritako baldintzak betetzen dituen orori zerbitzua erabiltzeko eskubidea onartzea.

d) Baldintza teknikoen pleguko 2. artikuluan ezarritakoak betetzea.

e) Kontratua klausula ekonomiko-administratibo eta teknikoen plegu honetan eta berau osatzen duten gainontzeko agirietan aurreikusi bezala betetzea.

f) Kontratuaren xedea eta bertan ezarritako mugak errespetatzea, eta uneoro kontratua behar bezala eta arduraz betetzen dela bermatzea.

g) Auzo Udalak emandako jarraibideak betetzea eta bertako arduradunari edo izendatzen duten langileari kontratua behar bezala betetzen ari dela ikuskatzen uztea. Horretarako, auzo udalak zerbitzuaren kudeaketari buruz idatziz eskatzen dion dokumentazioa aurkeztu beharko du, errekerimendua egiten zaionetik 15 eguneko epean.

h) Urteko ustiapenaren datu ekonomikoak aurkeztu beharko ditu auzo udalean, plegu teknikoetan adierazitako moduan.

i) Kontratua formalizatu baino lehen, hirugarren pertsonei edota gauzei eragindako kalteen gaineko erantzukizun zibileko aseguru poliza izenpetzea, 300.000 euroko kopuruarekin.

16. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK

Esleipendunak ondorengo eskubideok izango ditu:

a) Ereñotzuko Auzo Udalaren ondasunak, zerbitzua emateko beharrezkoak direnak, erabiltzea.

b) Zerbitzua ustiatzeak eragiten dituen diru-sarrerak eskuratzea.

17. ARAU HAUSTEAK

Administrazio baldintzen eta baldintza teknikoen agiri hauetan zehaztutako betebeharrak ez betetzeagatik zigorrak izango ditu esleipendunak, eta klausula honetan xedatuko dira zigor horiek, eragin diren kalte-galeren ordaina emateko beharraz gainera.

Zigor erregimen honetarako, esleipendunak egindako hutsegiteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

17.1 Oso larriak

17.1.1 Bi hutsegite larri egitea urtebeten.

17.1.2 Kontratuaren xedea diren ondasunetan kalteak eragitea, arduragabekeriaren ondorioz.

17.1.3 Justifikaziorik eta Auzo Udalaren baimenik gabe zerbitzurik ez ematea edo ordutegirik ez errespetatzea bost egunetan hilabete batean (osorik zein zatiturik) edo zazpi egunetan hiru hilabeteko epean.

17.1.4 Zerbitzuaren erabiltzaileak edo Auzo Udaleko ordezkariak erasotzea edo larriki errespetua galtzea.

17.1.5 Auzo Udalak jarritako informazio puntua behar bezala ez zaintzea eta erabiltzaileari informazio modu egokian ez erraztea.

17.1.6 Nahiz kontsumitzaileentzat, nahiz ezer kontsumituko ez dutenentzat, tabernako komunak erabilgarri ez edukitzea.

17.1.7 Zerbitzuarekiko utzikeri larria

17.1.8 Ereñotzuko Auzo Udaleko Batzarrak emandako agindu ofizialak ez betetzea

17.2 Larriak

17.2.1 Esleitzeko garaian erabakitzaileak izan diren eskaintzaren konpromisoak ez betetzea.

17.2.2 Baldintza-agiri honetan xedatutako zerbitzuak arrazoirik gabe aldatu izana.

17.2.3 Instalazioei baimendu gabeko erabilpena ematea.

17.2.4 Baimendu gabeko lanak edota aldaketak egitea.

17.2.5 Edozein modalitate edo titulupean kontratatutako zerbitzuaren lagapena, azpi-alokairu edo eskualdatzea, guztizkoa edo partziala.

17.2.6 Kontratatutako funtsezko obligazioen urrapena suposatuko lukeen bestelako konplimendu eza.

17.2.7 Auzo Udalak agindutako eta honen iritziz beharrezkoak diren eraikuntzaren erabilerari dagokion aldaketa edo hobekuntzaren inguruko konplimendu eza.

17.2.8 Plegu honetan zehaztutako zerbitzugintzan aldaketak, justifikatu gabeko zioengatik.

17.2.9 Lanak ustiatzen hasteko baldintza-agiri honetan ezarri den epea ez betetzea.

17.2.10 Langileekiko lan-betebeharrak edo betebehar sozialak ez gauzatzea.

17.2.11 Sei hilabetean hiru hutsegite arin egitea.

17.2.12 Justifikaziorik eta Auzo Udalaren baimenik gabe zerbitzurik ez ematea edo ordutegirik ez errespetatzea bi egunetan hilabete batean (osorik zein zatiturik) edo lau egunetan hiru hilabeteko epean.

17.2.13 Zerbitzua emango duen pertsonala aldatzea Auzo Udalaren aurretiko baimenik gabe.

17.2.14 Auzo Udalak eskatutako zerbitzuak eta lankidetzari uko egitea edo dagokion lehentasuna ez ematea.

17.2.15 Baldintza teknikoetako 4. klausulan jasotako betebeharra ez betetzea (zerbitzuaren kudeaketari buruz administrazioak eskatzen dion dokumentazioa emandako epean ez aurkeztea).

17.2.16 Arau hauste arinak errepikatzeagatik (urtebeteko epean bi arau hauste).

17.3 Arinak

Orain arte aipatu ez diren gainerako hutsegiteak eta, nolabait ere, plegu honetan nahiz teknikoan ezarritako baldintzak betetzen ez direlarik, zerbitzuan larriak ez diren ondorioak eragiten dituztenak.

18. ZIGORRAK

Honako hauek izango dira Auzo Udalak esleipendunari ezar diezazkiokeen zigorrak:

- Hutsegite oso larriagatik 301-500 euroko isuna.
- Hutsegite larriagatik 151-300 euroko isuna.
- Hutsegite arinagatik 150 euro arteko isuna.
- Zerbitzua batere ez emateagatik honako isunak jarri ahal izango dira:
  - Lehenengo hamar egun naturalei dagokienez, 50 euro egun bakoitzeko.
  - Hamaikagarren egunetik aurrera, 30 euro egun bakoitzeko.

Baldin eta ezinbesteko arrazoirik balego, hori kontratistak frogatu beharko du.

19. KONTRATUA LAGATZEA

Auzo Udalak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.

Halaber, aurretik administrazioak espresuki baimendu ezean, esleipendunak ezingo dio lanen zati bat hirugarren bati azpikontratatu.

20. EREÑOTZUKO AUZO UDALAREN PRERROGATIBAK

Ereñotzuko Auzo Udalari ondoko prerrogatibak dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua moldatzea, kontratua bertan behera uztea adostea eta uzte horren ondorioak zehaztea, SPKLan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan zehaztutako mugak, baldintzak eta ondorioak kontuan harturik.

Prerrogatiba horiek erabiliz hartzen dituen erabakiek amaiera ematen diote administrazio-bideari eta berehala bete beharrekoak dira.

21.INSTALAZIOAK ITZULTZEA

Kontratu epea amaitutakoan, esleipendunak Auzo Udalari itzuli beharko dizkio zerbitzuari atxikitako ondasunak (plegu teknikoetako 5. puntua ikusi).

22. HONDAKINEN KUDEAKETA

Enpresa esleipendunak, hondakin kudeaketaren arduradun bat izendatu beharko du eta hura izango da hondakinen bulegoarekin harremanetan izango dena.

Behin kontratua sinatu eta zerbitzua ematen hasi baino lehen hondakinen ardura izango duenak Udaletxera etorri eta hondakinen bulegoan eskatu beharko ditu kudeaketarako beharko dituela aurreikusten dituen edukiontziak. Behin hori egin eta gero, bilketa zerbitzuko arduradunak zehaztuko dio non utzi beharko dituen egunero edukiontziak (egun bakoitzean dagokion hondakin frakzioa) eta noiz egingo zaion bilketa.

Esleipedun enpresa arduratuko da tabernaren terrazan sortzen diren hondakinak modu sailkatuan biltzen eta horretarako hartu beharreko neurriak hartuko ditu.

Esleipedun enpresak, eltxo eta eulien zabaltzea ekiditeko, terrazan egongo diren hondakin ontziak beti garbi eta txukun mantentzeko ardura izango du. Horretarako egunero hustu eta garbituko dira.

Hondakinak frakzio bakoitza modu honetara atera beharko du:

- Frakzio organikoa: poltsa konpostagarrietan edukiontziaren barruan.
- Ontzi arinak: granelean edo poltsa transparenteetan edukiontziaren barruan. Ez dira poltsa beltzak onartuko.
- Paper-kartoia: edukiontzi urdinen barruan ondo tolestaturik.
- Errefusa: poltsa transparenteetan edukiontzi barruan. Ez dira poltsa beltzak onartuko

Udalak hondakinak kudeatzeko utzitako edukiontziak garbi eta txukun mantendu behar dira eta behin udaldia pasa ondoren, hala jaso behar ditu bilketa zerbitzuak.

Astero, bilketa zerbitzuko arduradunak udaleko ingurumeneko sailari hondakinen kudeaketaren inguruko txostena egingo dio, aste horretako intzidentzien berri eman eta ondorioz, zehaztuko dio hondakin frakzio bakoitza zuzen ala oker kudeatu den.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA ESKUMEN AHALDUNA

23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-plegu honen arabera egindako kontratuak kontratu administratibo berezi izaera izango du. Kontratuan bertan agertzen ez den guztia Administrazio Publikoko kontratazioetan aplikatzen diren araudien arabera arautuko da.

Administrazio-baldintza zehatzen plegu honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik balego, plegu honetan ezarritakoa nagusituko da.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek berarekin izaera pertsonaleko datuetan sartzea dakarrenean, enpresa kontratistak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian finkatutako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babesari buruzko 2016/679 Europar Erregelamenduari eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legeari dagokienez.

25. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

1. Baldin eta kontratazio honi dagozkion izapide egintzek gaiaren oinarria zuzenean edo zeharka ebazten badute, prozedura ezin jarraitzea badakarte, defentsa gabezia badakarte edo kalte konponezina egiten badiete eskubide eta interes legitimoei, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da haien aurka, zeina Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen duen, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, zeina Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak arautzen duen.

2. Gainerako izapide egintzen aurka egonez gero, interesdunek alegatu egin beharko dute, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak hori kontuan hartzeko.

3.- Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren mende egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek hala nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

26. KONTRATAZIO PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK

SPKLen 140.1.4. artikuluan eta 15. Xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Hernaniko Udalaren egoitza elektronikoan edo Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko platafoman eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

Euskarazko eta espainierazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balioa.